

LEMOAKO UDALBATZA. 2020KO IRAILAREN 16EKO OHIKO OSOKO BILKURA			
9/2020 AKTA			
Tokia	Eguna	Hasiera	Bukaera
Udalbatzaren aretoa (telematikoa)	2020ko IRAILAREN 16ean	19:00 (Lehenengo deialdia)	19:28
Bertaratuak			
Idazkaria Kalet Oribe Garcia		Alkate-Udalburua Dña. Saioa Elejabarrieta Amorrortu and. (EH Bildu) Zinegotziak Eukeni Bikarregi Uriarte (EH Bildu) Marian Garai Salutregi (EH Bildu) Aritz Undurraga Almaraz (EH Bildu) Ioritz Fernández García (EH Bildu) D. Jon Andoni Pérez Bilbao jn. (EH Bildu) Iñigo Zuloaga López de Letona (EAJ-PNV) Esther Iturrioz Rementeria (EAJ-PNV) Urko Garamendi Meabe (EAJ-PNV) Joseba Iñaki Barrenetxea Iriondo jn. (EAJ-PNV) Dña Zuriñe Etxebarria Zuluaga and. (EAJ-PNV)	

Idazkariak beharrezko bertaratze-quoruma dagoela egiaztatu eta gero, Presidentetzak adierazi du Udalbatzako osoko bilkura irekia dela, eta bilerak modu telematikoa egingo direla COVID-19 pandemiaren egoerak udaleko gobernu-organoen aurrez aurreko bilerak egitea eragozten duen bitartean. Bilkurari hasiera eman zaio, eta gai-zerrendan sartutako gaiak zerrendatu dira:

1. 2020ko uztailaren 1ko ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.

Zuzenketa edo ekarpenik proposatu ez denez, uztailaren 1ko ohiko osoko bilkuraren onetsi da.

2. Alkatetza Dekretuen berri ematea Lemoako Udalaren osoko bilkurari.

Ebazpen horiek dagozkien liburuetan, 200 zkitik 268 zkira bitartean erregistratuta egon eta Zinegotzien eskura daude Udal Idazkaritzan.

232/2020 eta 248/2020 alkatetza dekretuak bikoiztuta daudela adierazten dute Iñigo Zuloaga López de Letona Joseba Iñaki Barrenetxea Iriondo, zinegotziek.

Puntu honetan, Udalbatzako kideak jakitun geratu dira

3. 2020eko aurrekontu orokorraren lehenengo hiruhileko exekuzio-egoeraren kontu ematea.

Alkate-udalburu andreak 2020ko ekitaldiko 3. hiruhilekoari dagokion aurrekontuaren exekuzio-egoerari buruz adierazi du zinegotziek jaso dituztela txostenak, laburpena eta datuak partidaz partida (datu horiek abuzturen 31ra arte direla adieraziz) eta datu orokorrak honako hauek direla:

Jasotako diru-sarrerak: 2.792.560,60 euro. Egindako gastuak: 2.168.511,23 euro. Alkateak adierazi du bidalitako txostenetan ikus daitekeela partidaz partida gastua zelan doan.

Puntu honetan, Udalbatzako kideak aurrekontu orokorraren exekuzio-egoeraren jakitun geratu dira.

4. Espazio publikoaren ordenantza proposamena.

Alkate-udalburu andreak, ordenantza aldaketa honen berri ematen du honakoa esanez; Plenora eramán behar zen behin-betiko onarpena egitera, baina Kontxik, udal aparejadoreak, proposamen bat egin zuten: Arau-testuan sartzea ostalaritza-establezimenduek eta tabernek izan behar dutela beren terrazak garbitzeko ardura, Udalak kaleak garbitzeko duen erantzukizuna alde batera utzita.

Gai honi buruzko botazioa egin da, eta aho batez onartu dute zinegotzi guztiek.

5. Aurkeztutako Mozioak

6.

Alkate-udalburu andreak honako mozio hauek aurkeztu direla informatzen du:

- Arratiako talde feministaren mozioa, akta honi atxikituko dena.

Mozio hau aho batez onartu dute zinegotzi guztiek.

- Orain Ardura ekimenaren mozioa, akta honi atxikituko dena.

Puntu honetara iritsita, bertaratuek honakoa erabaki dute, gehingo absolutuaren bidez, aldeko 6 bozkarekin (EH-Bilduko zientzietatik) eta kontrako 5 bozkarekin (PNVko zientzietatik).

Urko Garamendi Meabe jaunak, hitza hartzen du eta kontra bozkatzearen arrazoiak ematen ditu, honakoa esanez:

“Uste dugu abiadura handiko tren egiteko, aurreikusitako inbertsioek dabela arriskuan ipintzen pertsonen arreta bermatzea eta garapen ekonomikoa ezta. Edozelan be, etorkizunean aukera handiak ekarriko dituela uste dugu, AHTa eta demagogikoa dela, pandemiak sortutako keza aprobetxatzea gure herriarentzat estrategikoak diren aurrerapenak zalantza ipintzeko eta horregaz batera osasun arloko arreta eta beharrian sozialak kolokan jartzeko aitzakia moduan hartu dugu.”

7. Eskaerak eta galderak:

Alkate-udalburu andreak bake-epailea eta bere ordekoa izendatu behar direla dio, epea zabalik egon dela eta batzordean aztertuko diren 3 hautagai daude.

Urko Garamendi Meabe jaunak, galdera hauek egiten ditu:

- Covid19a sortutako egoera dela eta, kale garbiketa zerbitzua indartzeko udalak hartutako neurriei buruzko galdera egiten du, batez ere haurrentzako jolasak, edukiontziak eta abarri buruz.

Alkate-udalburu andreak honakoa erantzuten dio:

Orokorrean, herriko kaleak desinfektatzen dira oro har, komertzio, ume-parkeak eta mediku sarreretan zerbitzua indartuz, jende gehiago pilatzen baita toki horietan. Desinfekzio hau egunena behin egiten da.

Escolako garbitzaileei eta zerbitzuari laguntzeko baliabide material edo pertsonalekin laguntzarik eman den galdetu du.

Bai bera eta bai Marian zinegotzia, escolako zuzendaritzarekin batzartuta egon dira uztailetik aurrera, eskola hasierako protokoloa martxan ipintzeko, eta hau abuztuan itxi zuten, hiru aukera proposatzen ziren, aztertzen ziren hiru egoeren arabera. Garbiketa sistema aldatu da, goiz erdian beharrezkoa ikusten baitzen eta ondorioz garbitzaileei ordutegi aldaketa bat egin zaie. Baliabideei dagokionez, hainbat eskola sarreratan gel hidroalkoholikoaren dosifikatzaileak jarri dira eta baita lastoragailuak ere.

Urko Garamendi Meabe jaunak, iradokizun hau egiten du:

Langile kopurua gehitu ez direnez, puntu honetan ez eskatimatzea, zerbitzua bermez egin ahal izateko.

Alkate-udalburu andreak honakoa erantzuten dio:

Eskola zuzendaritzarekin harremanetan dagoela udalak momentu oro, protokoloetan aldaketak egiteko; beste ordutegi aldaketak, edota plantilla indartzeko, beharren arabera. Gainera, lokalak eta espazioak errazteari buruz, ikastetxeko zuzendaritzak bere jarduerarako beste espazio batzuk erabiltzeko aukera aurreikusten ez bazuen ere, udalak eskuragarri zeuden espazioak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zituen, baina honi eskatuz zein baliabide jarriko zituen mahai gainean hauek erabiltzeko. Adibidez, Ludoteka erabili nahi bada eskola jarduera egiteko, mobiliario zehatza, garbiketa, eta abar beharrezko da eta.

- Covid19aren inguruko diru-laguntzei buruz zein aurrekontua dagoen hauek handitzeko, galdetzen du Urkok.

Alkate-udalburu andreak honakoa erantzuten dio, hainbat partida baliatuz, jai batzordearen partida kasu, poltsa bat sortu zen eta hortik bi dirulaguntza sortu ziren: autonomo eta enpresa txikientzako eta familientzako. Diru poltsa ez da agortu, beraz beste linea batzuk egin daitezke, baina kontutan izanda %20 murrizpena izango duela aurrekontua.

Urko Garamendi Meabe jaunak, familiei zuzendutako dirulaguntzei dagokionez, eskaera gutxi sartu direla uste du eta zergaitia galdetzen du.

Alkate-udalburu andreak zergaitia ez dakicela eta bera ere harrিতa dagoela dio, batez ere enpresei zuzendutako laguntzak gehiago izango zirela espero zuelako.

Urko Garamendi Meabe jaunak, ea komunikazio txar bat egon den galdetzen du.

Alkate-udalburu andreak udalak dituen bide komunikatibo guztiak erabili direla dio: tabloia, Begitun, Arratia-Gorbeialde irratian, web orrialdea, eta abar.

- Azkenik, Urko Garamendi Meabe jaunak ea datuen babesaren legea errespetatu den galdetzen du.

Eukeni Bikarregi Uriarte zinegotziak legea errespetatu dela dio

Idazkariak jaunak, Alkate-udalburu andreak horrela eskatuta, hitza hartzen du, eta azalpen hauek ematen ditu:

Eskatzaileen izen abizenak eta bestelako datuak, dekretuan ez da berez agertzen. Dekretuari atxikitu zaion anexo batean, onartutako eta ezetsi diren eskaerak agertzen dira eta gero notifikazioak banan-banan egin diren, bakoitzari bere datuak soilik jarritz.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera amaitutzat eman du 2020ko irailaren 23ko 19:28ean, eta horren guztiaren fede ematen dut.

Ontzat emana

Saioa Elejabarrieta Amorrortu
Lemoako Alkatea



Kaiet Oribe Garcia
Lemoako idazkaria